

**2011KO APIRILAREN 15EAN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO
OHIKO BILERAREN AKTA**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hamabosta.

HILABETEA: Apirila.

URTEA: Bi mila eta hamaika.

HASIERAKO ORDUA: Goizeko bederatzi eta erdietan.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Patxi Plazaola Muguruza

BILDUAK: Aitor Aldasoro Iturbe

Fernando Boada González

Josi Insausti Mujika

Begoña Lasa Royuela

Julio Herreros Serna

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2011ko martxoaren 14ko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute aktarekiko zeresanik ez dagoelako.

2.- OBRAK KONTRATATZEA: Nekolalde kalean igogailua jartzeko obrak esleitzea.

Ezagutzera eman da 2011ko apirilaren 11ko Kontratazio-Mahaiaren proposamena.

“AURREKARIAK

I.- 2011ko martxoaren 14ko Gobernu Batzordeak, Juan Beldarrain arkitektoak egindako proiektuaren arabera, Nekolalde kalean igogailua instalatzeko obrak prozedura negoziatuaren bidez kontratatzea erabaki zuen, horretarako baldintza administratiboa onartuz. Esleipen-irizpidea, prezio baxuena izatea erabaki zen

Lizitazio prezioa, 162.017,09 €tan, BEZ barne ezarri zen.

II.- Prozeduran parte hartzeko, jarraian aipatzen diren enpresei gonbidapena bidali zitzaien. Eskaintzak aurkezteko epea, 2011ko martxoaren 31koa izan zen.

III.- Bakoitzak eskainitako prezioa ondorengoa da:

Lizitazioa prezioa: 162.017,09 €an, BEZ kanpo.

EMPRESAK	PREZIOA
IRABA	157.172,26 + IVA
IKENA	137.094,35 + IVA
CONSTRUCCIONES ITURRIOZ	157.799,12 + IVA
CONSTRUCCIONES URBYCOLAN	144.781,24 + IVA
CONSTRUCCIONES ORIAKO	Ez du eskaintzarik aurkeztu

Fernando Boada jauna, sozialista taldearen ordezkaria obra hau exekutatzearen alde ez da azaldu, lehenik irisgarritasun kasu hau negoziatu gabe zegoelako eta horren ondorioz, aurrekontuan aurrekusi gabe zegoelako eta bigarrenik, entitate pribatuaren terrenoetan obra exekutatzeko delako. Kontratazio Mahaiaren beste kideak Gobernu Batzordeari ondorengoa proposamena egin die:

Lehenik. Aipatutako kontratua, IKENari esleitzea, 137.094,35 € + BEZ, ondorengo baldintzarekin: Gobernu Batzordeak esleipen-erabakia hartu baino lehen terrenoen disponibilitatea dagoela egiaztatuko da. Egikaritze epea, hamabi astekoa izango da, zuinketa akta sinatzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita eta hau kontratua sinatzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita hamabost eguneko epean sinatuko da.

*Aldez aurretik, adjudikaziodunari jakinaraziko zaio hamar laneguneko epean, **6.854,72 €**ko behin betiko fidantza aurkeztu behar duela.*

Abala aurkeztu eta gero, zerbitzua esleituko da eta jarraian kontratu administratiboa sinatuko da.”

Arangoiti Egoitzaren Fundazioak atzo izan zuen bilera eta bertan adierazi zen, igogailua jartzeko terrenoak okupatzeko ez dagoela inolako eragozpenik. Gaur bertan aurkeztu da, hori adierazten duen agiria.

Fernando Boadak, kontratazio-mahaiak egindako bileran aipatu zituen arrazoiengatik, proposamenarekin ez dagoela ados azaldu du.

Horren ondorioz, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 5 (EAJ, ALKARBIDE, EB, PP)
Aurkako botoak: 1 (PSE-EE/PSOE)

Abstentzioak: 0

Beraz, proposamena gehiengo absolutuarekin onartu da.

3.- ERROMESENTZAT EGOKITUTAKO ATERPETXEAREN LOKALA LAGATZEA.

Aterpetxearen erabilera, "Iparraldeko Santiago bidearen Fundazioari" lagatzea.

Ezagutzera eman da, "Iparraldeko Santiago bidearen Fundazioarekin", aterpetxea lagatzeko sinatzea proposatzen den hitzarmena, hau da:

"Beasainen 2011ko apirilaren 26an

BILDURIK

Alde batetik, PATXI PLAZAOLA MUGURUZA jauna, Beasaingo Udalaren ordezkari. Ekintza honetarako baimena, Toki Araubidearen Oinarriak erregulatzen dituen Legearen 21,1b) artikulua eta 2011ko apirilaren 15eko Gobernu Batzordeko erabakiak ematen dio.

Bestetik, FERNANDO IMAZ MARROQUIN, 15.111.463 A na duenak, IPARRALDEKO SANTIAGO BIDEAREN FUNDAZIOAREN ordezkari eta Lehendakari gisa. Horretarako ahalmena, Donostiako Fermin Lizarazu Notario aurrean 2008ko abenduaren 22an egindako Fundazio-eratzeko eskriturak, ematen dio. Protokolo zenbakia: 4.999. Aipatutako Fundazioa, Donostiako Urbieta kalean, 2an sotoan helbideratuta dago eta G-20993564 IFK du.

AURREKARIAK

I.- Beasaingo Udala, 1919 Tomoan, 209 Liburuan eta 183 Orrialdean inskribatuta dagoen, 11.447 finkaren titularra da eta beste batzuren artean, Igartzako Errota osatzen du. Beasaingo Udalarik finka hori, 1. Sektoreko Konpentsazio Proiektuak behin betiko onespenua lortu ondoren, esleitu zitzaion (2000-09-15).

II.- Orain dela gutxi, Errotaren lehenengo oina eta ganbara erromesen aterpetxerako egokitzeko proiektua onartu zen eta kontratazio-espeditua izapidetu ondoren, 2011ko otsailaren 28ko datarekin obrak esleitu ziren aipatutako proiektua exekutatzeko.

III.- 2011ko martxoaren 9an, Beasaingo Udaletxean sarrerra izan zuen, Gipuzkoako Santiago Bidearen Lagunen Elkarteak egiten duen iradokizuna, aterpetxea, entitate horri edo orain hiru urte osatu zen Iparraldeko Santiago Bidearen Fundazioari lagatzeko.

IV.- Aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak bidezkoa ikusten du proposamena eta 2011ko apirilaren 15eko bileran erabaki du, Errotan erromesentzat egokitutako gelen erabilera nahiz kudeaketa, "Iparraldeko Santiago Bidearen Fundazioari" lagatzea.

V.- Bi aldeek elkarri aitortu diote kontratatzeko ahalmena eta hori horrela izanik, dokumentu hau egiten da ondorengo

ESTIPULAZIOEKIN

Lehenik. Beasaingo Udalak, Igartzako Errotaren erromesen aterpetxerako egokitutako lehenengo oinaren eta ganbararen erabilera, "Iparraldeko Santiago Bidearen Fundazioari" lagatzen dio, helburu horretarako.

Hitzarmen sinatzen denetik, horretarako egokitutako eremua, logelak, komunak, dutxak eta biltegia duena, altzariekin eta erabilerarako behar diren tresna eta zerbitzuekin entregatzen da.

Bigarren. Lagapena baldintza hauekin ematen da:

1.- Epea: lagapenaren epea 10 urtekoa izango da, dokumentu hau sinatzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita, baina beti ere, adostutako baldintzak betetzen badira, lagapenaren helburua barne. Horrela ez bada, Udalak, Fundazioari alde aurretik audientzia emanda, lagapen-erabakia bertan behera utzi dezake, kalte-ordainik eman gabe.

2.- Gastuak: Iparraldeko Santiago Bidearen Fundazioak bere gain hartzen duen kudeaketa doanik izango da eta erromesari borondatez eman nahi duena bakarrik eskatuko zaio. Lortzen diren siru-sarrerak ondorengo gastuak estaltzeko izango dira: argi-indarra, ura, gasa, telefonoa, internet etab., izan ere, gastu hauek nahiz instalazioen erabileragatik egin beharreko konponketa txikiak, Fundazioaren esku gelditzen dira.

Udalaren betebeharra izango da, higieztina mantentzea eta kontserbatzea.

3.- Erromeseriaren arreta: Fundazioaren ardura izango da, erromeseriari arreta egitea, behar duen informazioa eta kredentzialak ematea.

4.- Kudeaketa: aterpetxearen kudeaketa, Fundazioari dagokio. Horretarako:

- Fundazioak, Igartzako errotako aterpetxerako arduraduna izendatuko du. Arduradun honen lana ondorengoa izango da:
 - Erromesei ospitaleko asistentzia eskaintzea, horretarako bere borondatez laguntzeko prest dagoen pertsonalaren bitartez.
 - Aterpetxea garbitzea.
 - Beasaingo Udalaren solaskide izatea.

- Aseguru zibila kontratatuko du eta sinatutako polizaren kopia aurkeztuko du, dokumentu hau sinatzean.
- Urteroko jardueraren Memoria Udalari aurkeztuko dio.

5.- Egutegia eta irekitzeko eta ixteko ordutegia: aterpetxea apirilaren hasieratik (edo aurretik Aste Santua lehenago bada) irailaren bukaera arte irekita egongo da eta ordutegia, 16,00etatik 22,00ra izango da. Erromesek aterpetxetik, goizeko 8,00etan irtengo dira.

Dena dela, erromesen demandak hala eskatzen badu, egutegia eta ordutegia aldatu daiteke, Udalari kontu emanda.

6.- Jangela-zerbitzua: aterpetxean ez dira ez gosaririk, ez bazkaririk ezta afaririk ere emango, baina bai bertan kontsumitzea egongo da erromes bakoitzak emandako elikagaiak, nahiz eta horretarako elektragailurik ez izan. Sukaldeko tresneria izatekotan, ostatu emaleak erabiltzeko izango da.

Horrekin lortu nahi dena zera da: Beasaingo ostalaritza sektorearekin kompetentzia izatea eta bide batez, tokiko merkataritza sustatzea eta erromesek hiri barnea bisitatzea eta ezagutzea bultzatzea.

Hirugarren. Jarraipen batzordea eratu da eta bertan, Gobernu Batzordeko kideaz gain, Fundazioaren Lehendakariak, Beasaingo aterpetxearen arduradunak parte hartuko dute. Egokia ikusiko balitz, udalerriko gizarte, kultur eta merkatal eragileak gonbidatu ahal izango dira jarraipen-batzordean parte har dezaten.

Laugarren. Beasaingo Udalak, aterpetxea iragartzeko ardura hartzen du, ohikoak diren baliabideen bidez eta zehazki Web orrian argitaratuz.

Eta guztiaren adostasun frogatzat, bildutakoek dokumentu hau bikoizturik sinatu dute goian aipatutako data eta lekuan.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Beraz, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

Lehenik. “Iparraldeko Santiago bidearen Fundazioarekin”, Igartzako Errotako aterpetxearen erabilera eta kudeaketa lagatzea, aipatutako hitzarmenaren arabera.

Bigarren. Alkate jaunari baimena ematea, hitzarmena sinatzeko.

4.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera goizeko hamarretan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek akta hau idatzi eta sinatu dut.